

## ESKALDUN BAT MARTEN.

D EREDUA, 6. MAILA: NARRAZIOA.

Testuak 501 hitz ditu

LAGINA: 4 ikastetxe, 6 ikasgela, 100 ikasle.

**Testua:** Ipuina da. Ez du zailtasun berezirik izan. Hamaika galdera egin ziren, horietatik 4k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 2k, testua bere osotasunean ulertzea; 2k, interpretazio bat garatzea; eta 3k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

**Emaitza:** Batez besteko puntuazioa **7,62** izan zen.

Galdera bakoitzaren erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
94,00	99,00	91,5	84,00	96,17	98,00	69,00	53,00	85,50	75,25	88,00

**Zuzenketak:** Erantzunen formatua batu egin da. Zortzigarren galderan ikasleek zailtasunak izan dituzte ulertzeko "kontrajarritako sentimenduak" zer diren. Azalpena luzatu da ulermena errazteko.

### Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 11 galdera horiek izango dituela erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G1, G2, G3, G9
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G4, G7
3T (interpretazio bat garatzea)	G5, G6
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G8, G10, G11

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
1	0,5	1	1	0,5	0,5	1	1,5	1	1	1

Gutxienezko puntuazioa: **6**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.